


EKG atalogoa



A large, irregular, pink shape with several rounded protrusions and indentations, resembling a stylized flower or a splash, set against a light cream background. The shape is centered and occupies most of the frame.

EGKtik urteak daramatzagu gazteriaren errealitateari buruzko ikerketa ezberdinak egiten. Argitaratu dugun txostenen bat paperean izan nahiko zenuke? Idatziguzu eta musutruk bidaliko dizkizugu etxera. Hemen behean zerrenda guztia!

HAZIAK ASTIALDIRA. HEZIKIDETZAK ASTIALDIAN HARTZEN DUEN TOKIAZ HAUSNARTZEN





AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. OINARRI TEORIKOAK	6
2.1. SEXU-GENERO SISTEMA	6
2.2. GENERO-SISTEMA HEZKUNTZAN	8
2.2.1. Hezkuntza-prozesua eta generoaren eraikuntza	9
3. HEZKIDETZA	11
3.1. Hezkidetzak astialdian	14
4. METODOLOGIA	17
4.1. Galdetegia	17
4.2. Lan saioak	17
5. ANALISIA ETA JASOTAKO INFORMAZIOA	19
5.1. HEZKIDETZA, ASTIALDI TALDEEN ULERKERATIK	19
5.2. EGUNEROKO LANEAN ETA BIZIPENETAN ARRETA JARRIZ	25
5.3. ESPAZIOAK: banaketa eta erabilera	28
5.4. MATERIALA	29
6. ETORKIZUNERAKOKO PROPOSAMENAK	31
6.1. Astialdi talde eta elkarteei zuzenduta	31
6.2. Administrazioei zuzenduta	35
7. ITXIERA	37
8. BIBLIOGRAFIA	39

5. ANALISIA ETA JASOTAKO INFORMAZIOA

Astaldi taldeetan hezkidetzak nola ematen den aztertu baino lehen, hezkidetzak bera nola definitzen duten jakin nahi izan da. Horretarako hasteko, galdetegian hezkidetzak zer den galdetu da. Emaizten arabera, hezitzaile taldeetako %92,5ak badaki zer den hezkidetzak. Ondorengo grafikoan ikus daiteke emaitza.

GRAFIKOA 1. BA AL DAKIZU HEZKIDETZAK ZER DEN?



Iturria: EGK-k eginiko galdetegia

1 Txostenean bildutako definizioak euskaraz eta gaztelaniaz egin dira eta ondoren itzuli, beraz, guztiak ez dira jatorrizkoak.

Honi jarraiki, galdetegian jaso ditugun hainbat definizio¹ bildu nahi izan dira:

“Genero-roletan eta gizon eta emakumeen arteko harremanetan eragiten duen hezkuntza, gure harremanak eta erakundeak menderatzen dituzten klaxeei buruz kontzientziatzeko eta horiek zuzentzen saiatzeko. Emozionalki berdintzaileagoak, bidezkoagoak, solidarioagoak, errespetuzkoagoak, kontzienteagoak eta osasuntsuagoak izan gaitzen”.

“Hezkidetzak, genero rolak apurtzea eta hortik at dagoen identitate eraikuntza aske bati bide ematea du helburu”.

“Generoari dagozkion bereizketarik egin gabe heztea, sozialki jaso ditugun generoari buruzko jarrera eta portaerak deseraikiz”.

Lan-saioetan hezkidetzak definitzea zaila dela adierazi da, hala ere, denak ziren jakitun hezkidetzak zer den. Aipatu zuten, ordea, modu kontzientean duela gutxi jarri diotela izen hori, eta lan hori aurretik ere ahaleginez burutzen zen arren, agerian gelditu da ez zela kontzeptuarekin modu zuzenean lotzen.

8. BIBLIOGRAFIA

Arabako Foru Aldundia (2004). *Generoa astialdian*.

EGK (2016). *Sexualitatearen koloreak*. Bizkaiko Foru Aldundia. Bizkaiko Behatokiaren Zuzendaritza Nagusia.

Eusk. EGK (2018). *Berdintzei: Hezkidetzarako lehen urratsak*.

Emakunde (1997). *Ikastetxearen hezkidetzak eredu egiteko gida*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundea.

Fresnedo, Ibai eta Gabilondo, Joseba (2018). *Betaurreko moreak gida*. Haurrentzako eta nerabeentzako zerbitzuak. Donostia-San Sebastián: Gaztematika. Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Sistema.

Hezkuntza Saila (2019). *EAEko hezkuntza sistemarako II hezkidetzak-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidea*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco.

Torregrosa, Itxaso eta Tato, Eloi (2020). *Sexu heziketari buruzko gida Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat dokumentuan*. Iruña: Graficas Xabier.

WEBGRAFIA

Naizen (2020). <https://naizen.eus/eu/terminologia/>

Alboan (2020). <https://www.alboan.org/eu/>

39

esku geratzen da zer, noiz eta nola landu. Espezifiki ez dago irizpiderik ezarrita eta horrek zaila egiten du hezkidetzak zein mailatan ematen den neurtzea.

5.2. EGUNEROKO LANEAN ETA BIZIPENETAN ARRETA JARRIZ

Behin hezkidetzari buruzko informazio orokorra landu eta jaso ondoren, hezkidetzak astialdi eremuetan nola ematen den ikusi nahi izan da. Horretarako, hasteko, errealitatea bera eta egunerokoa ea neska/mutil edo femenino/maskulino dikotomian oinarritzen den galdetu da.

Honekin batera, ondorengo grafikoan galdetegi emaitzak aurkezten dira, non galdera honi erantzun zaion.

GRAFIKOA 3. USTE DUZU ASTIALDIA NESKA/MUTIL EDO FEMENINO/MASKULINO DIKOTOMIETAN OINARRITUTA DAGOELA?



Iturria: EGK-k egindako galdetegia.

Grafikoan ikus daitekeen bezala, galdetegia erantzun dutenen %70ak ez du uste astialdia berez diseinatu dagoen bezala neska/mutil edo femenino/maskulino dikotomietan oinarritu dagoenik. Iritzia eman duten pertsonen arabera, astialdia ez dago dikotomia baten oinarrituta, baina gizartean dikotomia dagoen heinean ezarritako genero rolen erreproduzioak ematen direla uste dute.

“Nahiz eta astialdi taldeak haur eta gazte guztiak ekintza berdina egitera bideratzen dituen, jolas librearen unean dikotomia hori nabarmetzen da. Hau da, nahiz

FORMAKUNTZA DUALA HOBETO EZAGUTZEKO TXOSTENA



Aurkibidea

1	<u>Sarrera</u>	4
2	<u>Zertan datza Formakuntza Dualak?</u>	5
3	<u>Formakuntza Duala: ikasle, irakasle eta arduradunen ikuspegitik</u>	6
	<u>3.1 Eredu Duala formakuntza modura</u>	
	3.1.1 Zein nolakoa da enpresan garatzen den formakuntza aldia?	
	3.1.2 Nola eragiten dio Formakuntza eredu Dualak gazteari?	
	3.1.3 Zein nolako eragina du hezkuntza sisteman?	
	3.1.4 Eta Unibertsitateen esparrua?	
	<u>3.2 Eredu Duala lan mundura sartzeko alternatiba modura aztertzeke blokea</u>	
	3.2.1 Formakuntza prestakuntzaren diseinua	
	3.2.2 Formakuntza Dualaren Irisgarritasuna	
	<u>3.3 Formakuntza Dualak etorkizuneko enpleguaren gainean eskaintzen dituen aukerak</u>	
	3.3.1 Lanpostuan igoera?	
4	<u>Genero-ikuspegia Formakuntza Dualean</u>	10
5	<u>Ondorioak eta erronkak</u>	11
6	<u>Itxiera</u>	12
7	<u>Bibliografia</u>	13

2. Zertan datza Formakuntza Dualak?

Etengabekoak eta asko dira enplegu munduak jasaten dituen aldaketak eta horretara moldatu beharra dauka hezkuntza sistemak ere. Bide horretan aurkitzen da Formakuntza Dualaren eredua, ikasleen laneratze hobetzailea lortzeko ikaslearen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua berritu batean, alegia. Honela definitzen du arlo honetan esperientzia duen [Mondragon Unibertsitateak](#): "Prestakuntza edo Formazio Duala prestakuntza-aldiak heziketa-zentroan eta enpresan edo erakundean txandakatzen dituen hezkuntza-jarduera da".

Helburuak

Txandakatze dinamika honen helburuari erreparatuz, ikastetxe eta enpresa edo erakundeen artean burutzen den ikaskuntza prozesu baten bidez ikasleak hezkuntza formakuntzako -izan Lanbide Heziketa, izan Unibertsitate arlokoa- titulu bat lortzea da helburu nagusia. Beste hitz batzuekin esanda, heziketa zentroan eskuratutako gaitasunak enpresan eskuratutakoekin bat egitea da. Horrela, bi eremuetan jasotako gaitasunak elkar elikatu eta osotuko dira, ikaslearen formakuntza integral bat lortu ahal izateko. Horretarako, enpresek modu aktiboan parte hartuko beharko lukete prestakuntza txandakatua jasoko duen ikaslearen gaitasunen profilaren diseinuan.

Bestalde, kalitatezko enpleguak sustatuz, gazteei lan-merkatuan sartzeko bidea erraztea bilatzen du Formakuntza Dualak. Ekoizpen eta produktuen prozesuaren ordean, langilearen gaitasun eta kualifikazioari lehentasuna ematen die (Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketa Saila).

Zein eremutan ezarri da?

Lanbide Heziketako esparruan hartu du indarra, baina Unibertsitate arloan ere hedatzen ari da.



Nortzuk hartzen dute parte?

Ikasleak dira jardueraren honen subjektu nagusiak. Ikasle hauek prozesu guztian zehar lagunduko dituzten tutoreak izango dituzte. Batetik, tutore akademikoa izango dute (irakaslea izan daiteke); bestetik, enpresako edo erakundeko tutorea. Bien artean prestakuntza-plana zehaztuko dute. Ondoren, enpresako edo erakundeko tutoreak bere gain hartzen du prestakuntza planaz arduratzeko zeregina. Aldiz, tutore akademikoa prestakuntza plana betetzen dela bermatzen du. Enpresetako egonaldi hau lan kontratu baten bidez izan daiteke, edota beka baten bidez. Prozesuan zehar, bien arteko komunikazio eta koordinazioa ezinbestekoa da. Amaitzeko, bakoitzak bere aldetik, ikaslearen ebaluazioa egingo du.





6. Itxiera

EGK-k Formakuntza Dualeko errealitatera hurbiltzeko urratsa eman du, esparru honetan ere gazteen eskubide, interes eta beharren alde lan egiteko. Ikasketa jardueraren honen garapena aztertu eta gertatzen diren arazo eta hobeak proposamenak jaso nahi izan ditu hauek administrazio publikoari helarazteko asmoz.

Bide berria dago egiteko eta asko oraindik ere ezagutzeko. Ibilbide berriko jardueraren Formakuntza Duala indartsu dator eta garrantzitsua da orain garatze prozesuan dagoela eta gero eta hedapen handiagoa izaten ari den honetan, gazteen ahotsa zuzenean mahai gainean jartzea. Izan ere, gazteek zer esana dute haiei eragiten dieten politika eta neurrietan.

Horregatik, EGKtik lanean jarraituko dugu Formakuntza Dualaren ereduaren ere ikasleen hitza oinarri izanik EGKren diskurtsoa eraikitzen eta botere publikoei eskaera eta nahiak helarazten.

MUGEN MUGETATIK #IKUSGAITEZEN GAZTE MIGRATZAILEEN ETORKIZUNERA BEGIRA



MUGEN MUGETATIK #IKUSGAITEZEN
GAZTE MIGRATZAILEEKIN ETORKIZUNERA BEGIRA
DESDE LAS FRONTERAS #IKUSGAITEZEN
MIRANDO AL FUTURO CON JÓVENES MIGRANTES

G Euzkoako
Gaztearen
Kontseilua
Consejo de
Juventud

AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
1.1 Elkar ikusten hasten	5
2. Diskriminazioei gazte begirada	6
2.1 Aukeren berdintasun eza	9
3. Non ikusten gara? Non aurkitu gaitezke? Espazio desberdinetako oztopoak	11
4. Bizikidetzarako zenbait gako	17
4.1 Harremanak eta testuinguruak erraztu edo zaildu ditzaketen faktoreak	18
5. Erronkak eta ondorioak	19
6. Itxiera	20
Bibliografia	21



5. Erronkak eta ondorioak

Parte hartzaileetako batek esan bezala, ikusten ez dena ez da existitzen, eta beraz eremu horiek (izan esfera publiko zein norbanakoaren espazio pribatukoak) ez badira partekatuz, ez da espazio horiek anitzago izan daitezen ahalbidetzen.

Kulturartekotasunean oinarritzen den gizarte baten alde egin nahi bada nahitaez egin beharko zaie aurre jatorri desberdineko gazteek partekatzen dituzten espaziotan azaleratzen diren eskaera eta erronkei. Elkarlanean egindako lana izan behar da, gazte guztiek lanketa hori egin eta parte hartzeko aukera errealekin izan behar dituzte. Lanketa horrek ahalbidetu behar du denon artean pentsatu eta eraldatzea gizartearen benetan ikus gaituzten, elkar ezagutu dezagun eta batera eman ditzagun aurrerapausoak gizarte bidezkoago, parte-hartzaileago eta berdintasunean benetan oinarritutakoa eraikitzeko.

Elkarbanaturiko ideiak daudela ikusi da parte hartzera etorri ziren gazteen eta topaketaren hasieran hitza hartu zuten gonbidatuen artean. Landutakoa aztertu ostean jarraian batutako ondorio nagusiak atera dira:

- Gazte guztiek ez dituzte parte hartzeko aukera berdinak. Norbanako batek ez baditu bizitza duin bat izateko baldintza oinarritzkoenak ziurtatuak eta asetuta ezin du gizartearen parte hartu. Parte hartzeko aukera eta moduak ez dira berdinak gazte guztientzat.

- Gazte migratzaileen diskriminazioak eta aukera desberdintasuna hainbat eremutan ematen dira: etxebizitza, enplegua, hezkuntza, gizarte balioak...

- Hezkuntzaren papera azpimarratu da, topalekuetako bat izanik, garrantzi berezia baitu benetan ikus gaituzten eta elkarrekin bizi gaituzten ahalbidetu dezakeelako. Zentzu

horretan, segregazioaren gaia sakonean lantzeko beharra nabarmendu da.

- Profil anitzeko gazteentzako elkargune edo topalekuen beharra aldarrikatu da. Etorkizuna denon artean eraikitzeko kontuan izan beharreko eskaera da, denontzako gizartearen denon artean eraikitzeko. Zentzu honetan, topaketan egondako aniztasuna zein ahots guztiak entzunak izatearen bermeak partaidetza horizontala ahalbidetu du, guztiontzako espazio segurua sortuz.

- Gizartearen zabaldua dauden irain eta estereotipoak onartzen hasi dira Euskadin bizi diren gazteak. Arrazakeria onartu eta normalizatzen hasi dira, hau oso larria delarik Giza Eskubideen aurkako eraso zuzena baita.

Beraz, topaketatik ateratako ondorioek EGK-k azken urteetan adierazitako eskaerak berresten dituzte. Alde batetik gazteei ahotso emateko espazio parte-hartzaile gehiago sortu behar direla, eta bestetik, aniztasunean bizikidetzat ahalbidetzen duten balioak landu eta sustatu behar dira (hezkuntzatik zein bestelako gizarte espazioetatik). Azkenik, administrazio eta instituzioentzako atentzio dei bat lutzatzea beharrezkoa da, hitzeman dezaten gazteei elkar ikus daitezen aukera emango dietela, denon artean benetan eraiki dezagun etorkizuna elkarlanean. Jatorri desberdinak ez dezala gehiago eragotzi elkar topatzea, ezta partaidetza oztopatu ere.

2.1 Aukeren berdintasun eza

Gazteen artean ere, aurretik esan bezala, errealtateak anitzak eta desberdinak dira. Eskubideak teorikoki berdin bermatuta egon behar badira ere, badaude markatuta dauden baldintza batzuk bizi proiektuan edota oro har bizitzako hartu emanetan garrantzi eta balio berezia hartzen dutenak. Faktore horiei buruz hitz egiten dugunean, pertsona gazte baten bizitzan eragin dezaketen egoerei buruz ari gara, eta konkretuki kasu honetan gainera, bizitzeko egokitu zaizkien egoerei buruz.

Honakoak dira, besteak beste aipatutako diskriminazioa eragiten duten faktoreak:

- Sexua
- Nazionalitatea
- Adina
- Etnia- edo arraza-jatorria
- Ballabide ekonomiko gutxi izatea
- Gehiegizko pisua/obesitatea izatea
- Aniztasun funtzionala izatea
- Sexu- edo genero-identitatea
- Erlijioa edota sinesmena
- Haurdun egotea
- Auzo edota udalerrria

Iturria: Ikuspegi

Gainera, kontuan izan behar da faktore hauetako bat baino gehiago izan ditzakeela gazte batek bere bizitzan, diskriminazioa biderkatuz eta bazterketa handiagoa eraginez. Topaketara gerturatutako gazte batek esan bezala:

"Atzeritar moduan, esfortzu bikoitza egin behar dugu lupaz aztertutako ez izateko. Eta emakume izanda, ore gehiago".

Errealitate intersektionala.

Aurretik azaldutako problematikaren gako konkretuak (desberdintasunak eta diskriminazioak), begirada intersektionala aintzat hartuz hausnartu behar dira: pribilegioa eta diskriminazioa desberdinen begiradatik aztertuz eta arreta jarri.

Bereizkeria hauek egoera konkretuetan hartzen dute desberdintasun forma orokorrean (Ruiz, 2020). Gazte askok aukeren berdintasun eza bizitzako aspektu eta esparru hauetan jasaten dute:

- Etxebizitza bat alokatzeko orduan.
- Lanpostu baterako hautatuak izateko orduan/lan merkatutako sarreran.
- Zerbitzu publikoak jasotzeko eta bermatuta izateko orduan: hezkuntza, osasuna...
- Zenbait lege aplikatzeko orduan.

Ruizek (2020) dioen bezala, eremuen arabera gainera, diskriminazio horiek areagotu daitezke. Esaterako, lan eremuan edota lanpostu bat eskuratzeari dagokion eremuan, aukeren berdintasunean arrakala nabarmena egoten da gazte askoren edota ezaugarri desberdindun gazteen artean. Kolektibo deitzen diegun gazte talde batzuentzat, subjektu gisa ere (gazteak honen baitan bereziki).

ISLAMOFOBIA: FEMINISMOAK, ERRONKAK ETA IKUSPEGIAK






AURKIBIDEA

SARRERA	5
1. ISLAMOFOBIA	6
2. GENERO-ISLAMOFOBIA	9
3. FEMINISMO DEKOLONIALA	13
4. TESTIGANTZAK	15
5. DESIREN PUTZUA / ESKAERAK	20
6. ITXIERA	22
BIBLIOGRAFIA	23

2.

GENERO – ISLAMOFOBIA

Mijares eta Ramirezek (2008) esan bezala faktore ugari gurutzatu daitezke musulmanek pairatzen dituzten diskriminazioetan, eta ekitaldiko topaketan landutako genero-islamofobia zer den azalduko da jarraian. Goikolearen (2013) arabera, genero-islamofobiak jarrera xenofobo eta islamofoboeri erreferentzia egiten die, hau diskurtso sexista eta misoginoekin nahasten delarik. Horren ondorioz, emakume musulmanak modu bikoitzean zapaltzen eta diskriminatzen dira. Hala, emakume izateagatik eta musulman izateagatik zapalkuntza bikoitza sufritzean datza genero islamofobiak.



MIGRATZAILEEI BURUZKO AURREIRITZIEI PLANTO! TXOSTENA





AURKIBIDEA


SARRERA	5
1. ISLAMOFOBIA	6
2. GENERO-ISLAMOFOBIA	9
3. FEMINISMO DEKOLONIALA	13
4. TESTIGANTZAK	15
5. DESIREN PUTZUA / ESKAERAK	20
6. ITXIERA	22
BIBLIOGRAFIA	23

3. DINAMIKA PARTE HARTZAILEA

Migratzaileei Buruzko Aurreiritziei Planto! jardueraren helburua gaur egun Euskadin dauden aurreiritziei buruz hitz egiteko espazioa sortzea izan zen. Gazteek gaur egun bizikidetzaren alorrean dauzkaten eta hartu nahiko lituzketen konpromisoei eta etorkizunerako dituzten desirei buruz hitz egiteko aukera eman zitzaien parte-hartzaileei.

Horretarako, eta azalpen teorikoa oinarri bezala ezarri ondoren, bizikidetza zer den eta aurreiritziek honengan zein ondorio izan ditzaketen identifikatzeko lanketa egin zen. Aurreiritziak nondik datozen eta hauspotzen dituzten faktoreez jardun ostean, etorkizunera begira egin beharrekoa eta erronkak landu ziren. Parte-hartzaileek hausnartutako gaiak eta ideiak jaso eta migratzaileei buruzko aurreiritzien gainean hitz egiteko aukera dagoenean asko dagoela esateke argi gelditu zen. Esandako ideiak jaso eta eztabaidarako tarte ireki zen.

Eta bizikidetza nola definitzen dute? *“Bizikidetza ez da baterako existentzia, hori argi izan arte ez da bizikidetza lortuko”*. Izan ere, bertaratuentzat denbora behar duen lana da: *“Ikasketa jarraiko prozesua da bizikidetzaren eraikuntza. Prozesu bat izanik etengabe aldatzen da eta uneko egoeretara moldatu behar da egokia izan dadin”*.



Migratzaileei buruzko aurreiritziei planto!

Aipamen bibliografikoak

6. AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

Council of Europe - Communication for Integration (C4I). (2015), Cities free of rumours: How to build an anti-rumour strategy in my city. Strasbourg.


De Torres, Daniel. (2011) Guía práctica para combatir los rumores y prejuicios sobre la diversidad cultural. Barcelona: Ajuntament de Barcelona.

Giménez, Carlos eta Malgesini, Graciela. (2000). Guía de conceptos sobre migraciones, racismo e interculturalidad. Madrid: Los libros de la Catarata.

International Organization for Migration. (2019). Glossary on migration, IML Series No. 34.

Madero, Angel; Montero, Jose Antonio eta Sánchez, Ignacio. (2014). Stop Rumores Manual Antirrumor. Federación Andalucía Acoge.

GAZTEAK ETA ETXEBIZITZA 2019



Aurkibidea

1	<u>Sarrera</u>	4
2	<u>Zertan datza Formakuntza Dualak?</u>	5
3	<u>Formakuntza Duala: ikasle, irakasle eta arduradunen ikuspegitik</u>	6
	<u>3.1 Eredu Duala formakuntza modura</u>	
	3.1.1 Zein nolakoa da enpresan garatzen den formakuntza aldia?	
	3.1.2 Nola eragiten dio Formakuntza eredu Dualak gazteari?	
	3.1.3 Zein nolako eragina du hezkuntza sisteman?	
	3.1.4 Eta Unibertsitateen esparrua?	
	<u>3.2 Eredu Duala lan mundura sartzeko alternatiba modura aztertzeke blokea</u>	
	3.2.1 Formakuntza prestakuntzaren diseinua	
	3.2.2 Formakuntza Dualaren Irisgarritasuna	
	<u>3.3 Formakuntza Dualak etorkizuneko enpleguaren gainean eskaintzen dituen aukerak</u>	
	3.3.1 Lanpostuan igoera?	
4	<u>Genero-ikuspegia Formakuntza Dualean</u>	10
5	<u>Ondorioak eta erronkak</u>	11
6	<u>Itxiera</u>	12
7	<u>Bibliografia</u>	13

3. Eredu desberdinak ezagutzen

EGK-k bai Emantzipa...zer? lantaldearen jardunaren bidez, eta baita jardunaldietan jasotako gazteen iritziaren bidez, bi behar antzeman ditu: alde batetik, etxebizitza eskuratzeko aukerak ez dira gazteen behar eta egoeretara moldatzen prezio altuegiek gazteen zorpetze ekonomikoa du ondorioztat; bestalde, etxebizitza eredu desberdinak aztertzeke beharra dago. Horregatik, bi behar hauei erantzuteko eta administrazioari proposamena luzatzeko asmoarekin eredu desberdinak lantzeko bidea hartu da.



PARTE-HARTZEA EUROPEAN





AURKIBIDEA

1	SARRERA	5
2	GAZTEEN PARTE-HARTZE SOZIALA SUSTATZEA	7
3	INSTITUZIOAK ETA PARTE-HARTZEA	9
4	PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO KONTUAN HARTU BEHAR DIREN FAKTOREAK	11
5	PARTE-HARTZEAREN BARRUAN JOERA BERRIAK	15
5.1	Parte-hartzea epe luzerako estrategia batean sustatzeko joera berriak	16
5.2	Parte-hartzea ekitaldi konkretuetan eta epe laburreko estrategian sustatzeko joera berriak.	17
6	EUROPAKO ESPERIENTZIAK DESBERDINAK GAZTEEN PARTE- HARTZEAREN ALORREAN	21
7	BIBLIOGRAFIA	29

EUROPAKO ESPERIENTZIAK GAZTEEN PARTE HARTZEAREN ALORREAN

Parte-hartzea Europan

4

PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO KONTUAN HARTU BEHAR DIREN FAKTOREAK:

Parte-hartzea Europan

Komenigarria da *Herritarren parte-hartzeari eta Europar Batasunari buruzko EAEko gazteen iritzia* (Bilbao eta Trabada, 2011) eta EGK-k Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean egindako gazteen parte-hartze sozialari buruzko *Gazteak eta parte-hartze soziala Euskadin* (Bilbao, Corcuera, Longo eta Gonzalez, 2015) lanak aztertzea. Izan ere, bi lan horiek parte-hartzea sustatzerakoan kontuan hartu beharreko euskal gazteriaren hainbat faktore, iritzi eta ikusmolde islatzen dituzte.

Aurrez parte-hartze dinamiketan eragina izan dezaketen hainbat faktore kontuan izan behar direla aipatu da. Batzuetan, baina, dinamikak egituratzerakoan, antolatzaileen ekintza edo erabakiak berak izaten dira parte-hartzea oztopatu edo zaildu dezaketenak. Eudel-en *Nola egin kalitatezko partaidetza prozesua?* (Eudel, 2009) gidan, prozesu parte-hartzaile bakoitzak metodologia egoki bat izatearen garrantzia azpimarratzen da, kontuan hartuta zer gai jorratuko den eta zer-nolako testuingurutan lan egingo den. Halaber, prozesu parte-hartzaile bat diseinatzerakoan jarraitu behar diren zortzi funtsezko urrats identifikatzen dira.

Urbact Europa osoko hirietako hiri-garapen integratu eta jasangarria sustatzea helburu duen Europako Lurralde Lankidetzako proiektua da. Lan honetan jaso dira, alde batetik, gazteen parte-hartzearen alorreko proiektu pilotuak; eta, bestetik, **Urbact** programaren baitan parte-hartzearekin zerikusia duten eta sarituak izan diren esperientzia batzuk.



Parte-hartzea Europan



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua